


Euskal Autonomia Erkidegoaren migrazio-saldoa positiboa izan zen 2018an eta 14.724 pertsona gehitu zitzaizkion biztanleriari

Kanpoko edo erkidegoaz gaindiko mugikortasun geografikoa Espainiako autonomia-erkidegoen batez bestekoa baino 5 puntu txikiagoa izan zen

2018an migrazio-saldo positiboa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan; zehazki, Eustatek landutako datuen arabera, etorritako pertsonak 14.724 gehiago izan ziren joandakoak baino, eta kopuru hori 2017koa baino handiagoa da, orduan 10.725 gehiago izan baitziren.

Lurraldeka, Bizkaiak 7.019 pertsona irabazi eta migrazio-saldo handiena izan zuen zenbaki absolutuetan; Gipuzkoak 4.835 pertsonako saldo positiboa izan zuen, eta Arabak 2.870ekoa. Migrazio-saldoaren igoera handiena, ehunekotan, Gipuzkoako lurraldeari dagokio, aurreko urteko aldean ia % 66ko gorakada izan baitzuen. Bizkaian saldoaren hazkunde erlatiboa % 28,5ekoa izan da, eta Araban % 22,1ekoa. Hiriburuetara jotzen badugu, Bilboko udalerrian migrazio-saldoa 2.569 pertsonakoa izan zen, Gasteizen 2.553koa eta Donostian 1.402 pertsonakoa.

Euskal AEko emigrazioak, erkidegoen arabera, nondik-nora



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 2018. urtean 82 pertsonako saldo positiboa ateratu zen, baina aurreko urtekoa (720) baino txikiagoa izan zen. Beste alde batetik, atzerriko

herrialdeekiko saldoa positiboa izan zen, etorritako pertsonak 14.642 gehiago izan baitziren atzerriratuak baino.

2000. urtean zeinu-aldaketa gertatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko migrazio-mugimenduetan, positibo bihurtu baitziren; eta harrezkero, hau da, azken 19 urteetan, 2012an eta 2013an baino ez da egon migrazio-saldo negatiboa. Migrazio-saldoaren errekorra 2007an lortu zen: 16.835 pertsona.

Emigrazio-tasek nahiko behean jarraitzen dute

Kanpoko edo erkidegoaz gaindiko mugikortasun geografikoak 2018an Euskal Autonomia Erkidegoko 1.000 biztanletik ia 36ri eragin die. Espainiako autonomia-erkidegoen batez bestekoa baino 5 puntu txikiagoa izan zen, haietan 1.000 biztanletik 41 mugitu baitziren batez beste. Lurraldeka, Araba ‰ 41,5era iritsi zen, Bizkaia ‰ 35,4ra, eta Gipuzkoa ‰ 35,3ra.

Autonomia-erkidegoekiko migrazio-mugimenduak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu nola haien erdiekin Euskal Autonomia Erkidegoak migrazio-saldo negatiboa izan zuen, eta beste erdiekin positiboa.

Hauek dira immigratzaile gehien ekarri zituzten autonomia-erkidegoak, kopuru handienetik txikienera: Andaluzia, Murtzia, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Asturias, Ceuta-Melilla eta Valentziako Erkidegoa. Andaluzia da saldo positibo handiena ekarri duen autonomia-erkidegoa: 352 pertsona.

Euskal Autonomia Erkidegoarentzat erakargune, berriz, autonomia-erkidego hauek izan ziren, kopuru handienetik txikienera ordenatuta: Madril, Katalunia, Balearrak eta Errioxa. Lauren artean, gure autonomia-erkidegotik beste batzuetara joandako pertsonen bi heren jaso zituzten, nahiz eta saldo negatiboak ez ziren 200 pertsonatik gorakoak izan.

Emigratzaileen batez besteko adina 36,4 urte izan zen, eta immigratzaileena, berriz, txikiagoa: 32,8 urte. 21-39 urte arteko pertsonen % 51 eta emigrazioen % 47 egin zituzten.

Sexuaren araberako aldeak ez dira oso handiak: immigratzaileen % 52 dira gizonezkoak eta % 48 emakumezkoak, eta emigratzaileak ere antzera: % 53 dira gizonezkoak eta % 47 emakumezkoak.

Immigratzaileen % 62k eta emigratzaileen % 43k zuten atzerriko nazionalitatea

Atzerriko nazionalitatea zuten pertsonen immigrazioak 29.159 izan ziren 2018. urtean. Horrenbestez, guztizko kopuruaren bi heren egin zuten ia (% 62). Haietatik 6.517 beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri ziren, batez ere Madriletik, Kataluniatik, Andaluziatik eta Valentziako Erkidegotik; eta 22.642 atzeritik zuzenean etorri ziren.

Atzerriko nazionalitatea zuten pertsonen emigrazioak 13.472 izan ziren, guztizko kopuruaren % 43; eta erdiak baino gehiago (% 58) atzerriko herrialderen batera joan ziren. Hala, atzeritarren saldoa positiboa izan zen 15.417 pertsonaz.

EAEko biztanleen bizileku-aldaketetatik % 66 Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gertatzen da

EAEko biztanleen % 10,7k bizileku-aldaketaren bat egin zuten 2018an, eta mugikortasun hori, aldien % 66tan, Euskal Autonomia Erkidegoaren barrukoa izan zen; gainerako kasuetan erkidegoaz gaindikoa izan zen. Zenbaki horiek eta 2017koak ia berdinak dira.

Denetara, ohiko bizilekuaren 232.894 aldaketa zenbatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik 101.438 udalerri beraren barruko bizileku-aldaketak izan ziren. Erkidego barruko mugikortasuna, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak abiapuntu eta helmuga dituen, 52.216 mugimendura iritsi zen.

Halaber, kanpotiko edo erkidegoaz gaindiko 46.982 immigrazio zenbatu ziren. Erkidegoaz kanpotik abiatu eta Euskal Autonomia Erkidegoa helmuga duten immigrazioak dira, eta horietatik 26.099 etorri ziren atzeritik.

Azkenik, 32.258 izan ziren kanporako edo erkidegoaz gaindiko emigrazioak, edo, beste era batera esanda, autonomia-erkidegoko udalerri batetik abiatu eta helmuga erkidegotik kanpo izan zutenak; haietatik 11.457 atzerriratzeak izan ziren, eta hor % 3,5eko beherakada izan zen 2017ko kopuruen aldean.

Migrazio mugimenduen eta saldoen bilakaera. Euskal AE 1998-2018

Urtea	Inmigrazioak		Emigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira
1988	8.014	100	18.103	100	-10.089
1992	9.006	112	13.668	76	-4.662
1995	11.316	141	16.130	89	-4.814
1999	16.103	201	17.291	96	-1.188
2000	20.022	250	17.462	96	3.903
2001	25.775	322	18.696	103	7.861
2002	25.967	324	19.730	109	6.082
2003	28.467	355	22.216	123	4.864
2004	30.328	378	21.304	118	8.116
2005	33.993	424	20.672	114	12.256
2006	37.147	464	22.689	125	11.827
2007	41.361	516	23.669	131	16.835
2008	44.630	557	29.941	165	14.689
2009	38.368	479	31.815	176	6.553
2010	38.591	482	33.425	185	5.166
2011	41.011	512	32.819	181	8.192
2012	34.362	429	34.589	191	-227
2013	33.987	424	35.943	199	-1.956
2014	35.491	443	31.889	176	3.602
2015	35.917	448	32.555	180	3.362
2016	40.126	501	31.255	173	8.871
2017	41.861	522	31.136	172	10.725
2018	46.982	586	32.258	178	14.724

Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Orrialdea: 3 (3)